



## MUSIKA

### 2016-17 Ikasturteko programazio didaktikoa

<b>ikastetxea:</b> <i>centro:</i>	IES Uribekostabhi	<b>kodea:</b> <i>código:</i>	015143
<b>etapa:</b> <i>etapa:</i>	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	<b>zikloa/maila:</b> <i>ciclo/nivel:</i>	3. maila
<b>arloan/irakasgaia:</b> <i>área / materia:</i>	MUSIKA		
<b>osatutako arloak/irakasgaiak</b> <i>materias integradas/ áreas</i>	INFORMATIKA, HIZKUNTZA ETA LITERATURA MINTEGIAK		
<b>diziplina barruko oinarrizko kompetentzia elkartuak</b> <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia Arterako kompetentzia Teknologiarako kompetentzia Matematikarako kompetentzia Kompetentzia sozial eta zibikoa Zientziarako kompetentzia Kompetentzia motorra		
<b>irakasleak:</b> <i>profesorado:</i>	NAGORE AURREKOETXEA ALMUDENA MARTINEZ	<b>ikasturtea:</b> <i>curso:</i>	2016/2017

#### Zeharkako kompetentziak / *Competencias transversales:*

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
3. Elkarbizitzarako kompetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
5. Norbera izaten ikasteko kompetentzia.

<b>helburuak</b> <i>objetivos</i>	<b>ebaluazio-irizpideak</b> <i>criterios de evaluación</i>
<p>1. Musikak norberaren ideien, sentimenduen eta bizipenen berri emateko dituen aukera ugarietz jabetzea, eta hainbat motatako musika-adierazpenak errespetatzea eta balioestea, artea eta kultura ezagutzeko eta gozatzeko aukera ematen duten aldetik.</p> <p>2. Musikaren eta beste arte-hizkuntza, ezaguera, ikus-entzunezko baliabide eta hedabide batzuen arteko loturak zein diren jakitea, eta horiek guztiak artelan konplexuak</p>	<p>1. <b>Ideiak, sentimenduak eta bizipenak adierazteko bidetzat hartzea eta balioestea musika lanak.</b> Musikaren baliabideak eta konbentzioak aztertzen eta erlazionatzen ditu musikaobretan. Musika erabiltzen eta barneratzen du egiten dituen jardueretan. Jarduera artistiko eta kulturalak ezagutzeko eta haiekin gozatzeko interesa ageri du. Gaur egun musikaren inguruan sortzen den informazioaren erabilera kritikoa eta eragilea egiten du.</p>

ekoizteko beharrezkoak diren sormen-,  
espresio- eta komunikazio bidetzat erabiltzea.

3. Estilo, genero eta hainbat joeratako  
musika-lanetan erabiltzen diren elementu  
tekniko eta espresiboak aztertzea eta  
identifikatzea, eta hori guztia ezaguera-bide  
eta gozamen-iturritzat hartzea, musika ondo  
ulertzeko, erreferente estetiko berriak  
eskuratzeke eta mota askotako errealitate eta  
ekoizpen artistikoen bidez nork bere burua  
aberasteko.

4. Musikaren oinarriko teknikak, baliabideak  
eta konbentzioak ezagutzea, musika lanak  
autonomiaz eta trebetasunez aztertzea,  
interpretatzea eta ekoiztea, eta horretan,  
norberaren trebetasun intelektualez, ekimenaz  
eta irudimenaz baliatzea, sormen eta  
espresio bide indibidual nahiz kolektiboak  
lantzeko eta aberasteko.

5. Norberak zenbait musika-lan sortzea,  
horretan emandako denboran gozatzea eta  
musika pertsona gisa hazteko, emozio,  
sentimendu, bizipen eta ideien berri emateko  
eta komunikazio-gaitasuna, pentsamendu  
kritikoa eta autokonfiantza garatzeko bidetzat  
hartzea.

6. Zenbait testuingurutan egitekoak diren  
musika-proiektu musikaletan parte hartzea,  
eta talde barruan zenbait funtzio betetzea,  
horrela plangintzak egitearekin,  
koordinazioarekin eta talde-lana  
ebaluatzearekin lotutako trebetasunak  
lantzeko.

7. Musikaren eta soinuaren erabilerak eta  
funtzioak kritikoki aztertzea, eta horiek  
norberaren nahiz besteen esperientzietan  
identifikatzea, musikak gure inguruko

**2. Musikaren eta beste arte-hizkuntza,  
ikus-entzunezko baliabide eta teknologia  
batzuen arteko loturak zein diren jakiteko  
gai izatea, eta horiek guztiak artelan  
konplexuak ekoizteko erabiltzea.** Bestelako  
arte-hizkuntzak barneratzen ditu bere  
arte-ekoizpen eta -lanetan. Sormenez  
erabiltzen ditu teknologiak bere lan eta  
interpretazioetan. Irizpide estetikoak erabiltzen  
ditu bere musika-lanetan. Soinu askotarikoak  
ikertzen ditu eta bere musika-lanetan erabiltzen  
ditu.

**3. Zenbait musika-lanetan ageri diren  
elementu tekniko eta espresiboak ulertzea,  
eta musika-lan horiek erreferente  
estetikotzat hartzea.** Erreferentzia estetiko  
berriak lantzen ditu musika-obra askotarikoak  
entzunez. Musika entzutea balioesten du,  
norbera aberasteko eta gozamenerako iturria  
den aldetik.

**4. Autonomiaz eta sormenez erabiltzea bere  
musika-lanak aztertzeke eta interpretatzeke  
teknikak eta baliabideak.** Ekimena eta  
irudimena baliatzen ditu bere musika-lanetan.  
Printzipio estetiko egokiak erabiltzen ditu  
partiturak interpretatzeke. Teknika egokiak  
erabiltzen ditu ahozko interpretazioak eta  
interpretazio instrumentalak egiteke.

**5. Bere komunikazio-gaitasuna,  
pentsamendu kritikoa eta autokonfiantza  
lantzea, horrela bere musika-lanak sortzeke.**  
Musika-hizkuntzaren gaineko ezagutzak  
erabiltzen ditu berak sortutako musika-ideiak  
edo besterenak gauzatzeko. Modu arrazoituan  
komunikatzen ditu bere musika-lanak.  
Hazkuntza pertsonalerako baliatzen du musika.  
Adierazpen-baliabide propioak eta jakintza  
teknikoak uztartzen ditu. Pozik ageri da  
kalitatezko lanak egitean.

**6. Taldean egitekoak diren  
musika-proiektuetan parte hartzea, eta  
egindako lana ebaluatzeke gai izatea.** Gogoz  
parte hartzen du musika-lanen plangintzak  
egitean. Arduraz laguntzen du eta lan-eritmo  
egoki bat izaten ahalegintzen da. Sormenez eta  
ekimenez saiatzen da lanak egitean behar diren

gizartean eta kulturaren zer-nolako funtzioa duen ulertzeko.

8. Musika herri eta kulturen ondare eta identitatearen parte dela aintzat hartzea, eta, ondare oparo hori babestea eta sorberritzea helburu hartuta, eta elkartrukeak dakarren aberastasunaz jabetuta, kulturen arteko elkarriketak eta herrien konpartitzen dituzten esperientzia artistikoei egindako ekarpen ugarietako interesa izatea.

soluzioak bilatzen. Begirunetsua eta ulerkorra da taldekideek egindako lanarekin. Gogoz parte hartzen du taldearen ebaluazioan eta ahaleginak egiten ditu bere ekarpenak arte-produktu egokietan gauza daitezen. Musika-jarduerak eraikuntza pertsonalerako faktore eta talderako ekarpen izan daitezen ahalegintzen da.

**7. Musikaren eta soinuaren erabilerak eta funtzioak ulertzeko gai izatea, eta bere inguruko gizarte eta kulturarekin lotzea hori guztia.** Musika-ekoizpenen eta haien testuinguruaren arteko erlazioak ezartzen ditu. Obrek duten asmoari buruzko iruzkin arazoituak egiten ditu. Musika batek, erabilera-testuinguruaren arabera, izan ditzakeen erabilerak aztertzen ditu. Soinu-ingurune osasungarriak sortzen ahalegintzen da. Musikaren erabilerak eta funtzioak ulertzeko interesa adierazten du.

**8. Lan egitea Euskal Herriko eta beste herri batzuetako musika babestearen eta sorberritzearen alde, eta horretan, pertsona eta gizarte gisa hazteko bidetzat hartzea musika.** Kultura-ondare propioa eta beste kultura batzuetakoa ezagutzeko interesa ageri du. Euskal Herriko musika eta beste herri batzuetakoa onura pertsonal eta sozialeko elementua dela balioesten du. Euskal Herriko eta beste herri batzuetako musika-obrak eta abestiak ditu, besteak beste, bere erreperitorioan.

**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektua, ikaskuntza-nukleoa edo beste moduren batera antolatuta...].

**SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS** [organización en periodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

Ikasturte osoa proiektu bakar batean oinarrituta egongo da: “Nire Musika Albuma”. Norberaren ezagutzan oinarrituta, ikasleak bere emozioak eta sentimenduak identifikatzean datza.

Ebaluazioz-ebaluazio lantzen eta sakontzen joango dena. Bitartean hurrengo ikaskuntzak ere garatuko dituzte:

Ikasturteko hiru ebaluazioetan hurrengo edukien multzoak landuko dira: 1. **Eduki komunak** (Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarritzko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak), 2. **Musika entzutea eta ulertzea** (Entzunaldiak lantzea: testurak, generoak, formak, musikaren oinarritzko elementuak eta soinuaren ezaugarriak bereiztea, isiltasuna balioestea,...) 3. **Musika interpretatzea eta sortzea** (ahotsa, musika-tresnak eta gorputza erabili, abestu, interpretatu,.../ A

capella abestu, musika-tresnak erabili, organologia sakondu,...) **4. Testuinguru eta Erreferente musikalak** (musika-obren testuingurua aztertzea, zentzu/begirada kritikoa zabaltzea ...)

Hauekin batera **Ikus-entzunezko teknologiak** erabiliko dira edukiak sakontzeko informazio iturri gisa, musika entzuteko, ikerketa lanak eta aurkezpen lanak adierazteko.

1. <u>EBALUAZIOA</u>	2. <u>EBALUAZIOA</u>	3. <u>EBALUAZIOA</u>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nire gustoko Musika (orain)</li> <li>• Ikus-entzunezko baliabideen erabilpena eta ezagutza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nire inguruneke Musika (jaio nintzenetik, eskola, familia)</li> <li>• Kanta baten letra sortzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nire musika ikertzea: testuingurua, generoa, ondarea,...</li> <li>• Kanta bat grabatzea</li> </ul> <p>ARAZO EGOERA</p>
<b>DENBORALIZAZIOA:</b>	<b>DENBORALIZAZIOA:</b>	<b>DENBORALIZAZIOA:</b>
10 -11 ordu	11-12 ordu	10-11 ordu

**METODOLOGIA** [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

**METODOLOGÍA** [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

**DENBORALIZAZIOA:**

Ikasturtea hiru ebaluaziotan banatuko da eta bakoitzean eduki multzoak landuko dira. Ebaluazio guztietan komunak diren oinarriko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak, Musika entzutea eta ulertzea, Musika interpretatzea eta sortzea, eta Testuinguru eta erreferente musikalak landuko dira.

**ESPAZIOAREN ANTOLAKETA:**

Ordenagailuen gelan B109; gure lana bertan gertatuko da. Arbela digitala eta ikasleen ordenagailuak.

Musika gelan: Aurkezpenak eta entsaioak egiteko edo eta prestatzeko.

**TALDEKATZEA:**

Ezberdinak izango dira lantzen diren edukien eta ezaugarrien arabera. Talde handian: Gaien aurkezpenak egiteko, entzunaldiak eta bideoak lantzeko, azalpen orokorrak egiteko. Lan talde txikietan: binaka edo banakako lanak egiteko. Lan konketuak lantzeko, baita hausnarketa lanak egiteko ere.

### **METODOLOGIA:**

**Komunikazioa** landuko da talde lanen, aurkezpenen, interpretazioaren eta entzumenaren bitartez; Harremanak sakonduz. Norberak bere komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala)

**Interpretazioa** banakakoa eta taldekkoa izango da. Hemen ardura, konpromisoa, kontzentrazioa, jarraitutasuna eta kontrol-emozionala kontutan izango dira. Baita elkarrizketa, negoziazioa eta lankidetzeta.

**Entzumena**, asertibitatearen eta enpatiaren bitartez landuko da: analisia, iritziak bateratzea eta erabakiak hartzea. Entzunaldiak eta ikasleen iritziak eta lanak.

**Sustatuko diren jardueretan** informazioa bilatu eta jaso egingo dute, ikerketan, analisi kritikoa, bilaketa ahalmena, informazioaren gestioa, talde-lana, antolamenduan, planifikazioan eta komunikazioan oinarriturik egongo direlarik. Hau da, informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.). Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea informazio- iturri egokien bitartez.

**Norberaren trebetasunak** (enpatia, autokritika eta autoestima) eta **giza-trebetasunak** (lankidetzeta, malgutasuna, konfidantza, ardura eta zentzu kritikoa)

**Hazkunde pertsonala**: sentimenduak, kontzientzia hartu eta hazkunde emozionala

**Erabakiak hartzen ikastea, konfidantza sortzea eta ikaslearen ongizate afektiboa** sustatzea.

**Plangintza** banakakoa eta taldekkoa izango da, intentzio zehaztu eta jakin baten bitartez, Faseetan egitaratuta: alde zuzeneko plangintza, jarraitutasuna, gogoia eta iraunkortasuna egiten denarekin. Hau dela eta, egindako lanen ebaluazioa egingo da eta hobekuntza-proposamenak landuko dituzte, lortutako emaitzaren berri ematearekin batera.

### **BALIABIDEAK:**

➤ **Baliabide analogikoak:** Testu libururik ez da izango.  
Aurkezpenak ahozkotatzea lantzeko.

➤ **Baliabide digitalak:** Musika sarea erabiliko da: *Musika Gunea XXI. mendea*. Bertan musika ikasgaiaren informazioa biltzen da.

**Google Docs:** banakako lanak zein kolaboratiboak egiteko funtsezko tresna.

**Google calendar:** ikasleek burutu behar dituzten lanen data bertan adieraziko da.

**Youtubeko bideoak:** entzumena, kritika,... lantzeko.

**Classrooma** lanak burutzeko tresna. Google Docsekin batera

**Popplet-a** ideiak antolatzen.

**WIX** Albuma digitala: argazkia, soinua eta bideoa, sortzeko aplikazioa.

**Mugikorraren erabilpena:** grabazioak, audioak eta aplikazioak.

### **EMOZIOEN PROIEKTUA:**

Helburua ikasleak pentsatzen duena, sentitzen duena eta egiten duena bereiztea; beraren ezagutza pertsonala emozio batengan.

**IRTEERA:**

Helburua diska bat nola grabatzen den ezagutzea eta sortzea. Bigarren ebaluazioaren amaieran Grabazio-estudio batera joango gara. Bisita gidatua izango da eta bertan diska bat nola grabatzen den azalduko digute. Gainera ikasleek abesti baten letra prestatuko dute eta estudio bertan grabatzeko aukera izango dute.

**HOBKUNTZA PLANA:** Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberetako atazak egingo dira. Ataza horiek prestatzeko formakuntza lan saio batzuk antolatuko dira eta bertan landutakoa 3.ebaluaketan zehar ikasgeletan gauzatuko da".

**EUSKERAREN EGUNA:** Euskal Herriko kultura eta musika ondarea zabaltzea. Euskal kanta abestu, dantza egin eta musika-tresna tradizionalak (txalaparta, trikitrixa, panderoa) ezagutu. Modu kooperatiboan parte hartzea eta taldean interpretatzea Euskal musika.

<p><b>EBALUAZIO-TRESNAK</b> [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p><b>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN</b> [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p><b>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK</b> [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p><b>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN</b> [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<p>Etengabeko prozesu bat da. Ebaluazio bakoitzean landu diren fitxak, musika, grabazioak eta aurkezpenak baloratuko dira; eguneroko lana ezinbestekoa delarik.</p>	<p>Banakako zein taldeko lanen nota</p> <p>Lanak (fitxak eta ikus-entzunezko montajea): %60 Jarrera: %20 Datan: %20</p>
<p><b>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK</b> [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisisa, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekuperazio-sistema...].</p> <p><b>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN</b> [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p>	
<p>→ <b>Ebaluazio bat gainditzeko 5 atara beharko da.</b> Ikasgaien berreskurapena: fitxaren bat ondo finkatu gabe gelditu bada, hobekuntza jarduerak eskainiko zaizkio.</p> <p>→</p>	

- Ebaluazio berreskurapena: Hurrengo ebaluazioa gainditzen badu gaindituko du, jarraia baita. Eta fitxak eta grabazioak aurkeztuta egon behar dira. Hala ere, 1. eta 2. ebaluazioak gainditu gabe badaude, derrigorrezkoa izango da 3. ebaluazioan, ikasturtean zehar egin ez diren ariketak aurkeztea.
- Ikasturte osoaren berreskurapena: Ekainean ez-ohiko ebaluazioa **ahozko froga** baten bidez egingo da. Honetaz aparte, Ikasleak ikasturtean zehar egindako lanak (**fitxak**) aurkeztu behar izango ditu **inprimatuta, ebaluazioetan eskatutako grabazioak eta audioak**. Horretarako, zozketa bat egingo zaio (1., 2. eta 3. ebaluazioetan landutako fitxekin), ateratzen duen zenbakiaren arabera ebaluazio horretan landutako proiektua ahoz defendatuko du.
- Aurreko ikasturteko berreskurapena: 1. ebaluazioa gainditzea. Ez bada gainditzen lan espezifikoa bat egin beharko da epe baten barruan non aurreko ikasturtean landutako gaietan oinarrituta egon behar duen. Calendarren adieraziko da.
- Gainditu gabe geratzen bada eta alde egiten badu edota 4.DBHra pasatzen bada: Ikasturtean zehar eskatu diren lanak txosten batean agertuko dira eta hauek aurkezteko 2 aukera egongo dira. Aukera bakoitzean lana eta azterketa (Presentazio bat lanaren fitxetan oinarrituta eta ahozko azterketa) egongo da.
  - ★ Lana, PIREaren lana da. Lan hau ikasturtearen amaieran aurkezten zaio ikasleari, udan prestatzeko eta hurrengo ikasturtearen hasieran, ikasleak mintegiak adostutako datan aurkeztu behar du. Lan honen notaren pisua %50 da. Bigarren zatia azterketa da eta bere pisua ere %50 da.

#### OHARRAK / OBSERVACIONES